



Arartekoaren 2019R-2379-18 Ebazpena, 2019ko azaroaren 25ekoa. Horren bidez, URA – Uraren Euskal Agentziari gomendatzen zaio berriker dezala aldi baterako ur-ikuskatzaileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa sortzeko deitutako hautapen-prozesua.

Aurrekariak

1. URA-Uraren Euskal Agentzian ur-ikuskatzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko lan-poltsa sortzeko prozesuan parte hartu duen pertsona batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan jarraitu zen prozeduraren aurka. Prozesu horren deialdia egin zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018ko martxoaren 28an iragarki bat argitaratuz.

Kexa-idazkiaren arabera, prozesu hori Campo y Ochandiano enpresarekin lankidetzan gauzatu zen, eta ez zituen errespetatu enplegu publikorako sarbidea arautzen duten oinarritzko printzipioak. Honako alderdi hauek aipatzen zituen, esate baterako:

- Parte-hartzaileei ez zitzaizkien eman test motako probaren galderen enuntziatua eta izan zitzaizkien erantzunak [fase 1.A], nahiz eta hainbat unetan berriaz eskatu behin baino gehiagotan.

Egoera horrek, praktikan, eragozten zuen behar bezalako erreklamazio arrazoitua aurkeztea xede horretarako emandako epean (2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 1era, 14:00ak arte); izan ere, galderen enuntziatuari buruz gogora zitzaizkien datuak baino ez zituzten, haiek zer ordenean agertu ziren eta aurkeztutako ordezkari erantzunak.

- Kasu praktikoak garatzeari buruzko proba [1.B.b fasea] idatziz egin zen folio zurietan, eta parte-hartzaile bakoitzak izen-abizenak eta NANA adierazten zuen erabilitako orri bakoitzaren goiko eskuinaldeko izkinan; beraz, ezin da bermatu azterketak modu anonimoan eta inpartzialean zuzendu zirenik.
- Parte-hartzaileei ez zitzaizkien jakinarazi irizpide objektiboak eta aurrez prestatuak ote zeuden kasu praktikoak zuzentzeko; beraz, ez zitzaizkien eman, eta ez zuten horiek ezagutzeko aukerarik izan.
- 1.B fasearen behin-behineko emaitzak 2018ko ekainaren 1ean argitaratu ziren, hau da, 1.A fasearen aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen zen egunean bertan. Hala ere, fase honetan lortutako kalifikazioa garrantzitsua zen han parte hartu ahal izateko, eta, beraz, bazirudien jardun horretatik ondorioztatzen zela erreklamazioek ez zutelako baliorik izango hasieran argitaratutako notak aldatzeko.



- Horren ondoren, kexagileak bilera batera deitu zituzten 1. faseko azterketak berrikusteko. Oraingo honetan ere ez zitzaien 1.A probako galderen enuntziatuaren kopiarik eman, baina hartutako aukera zuzena zela justifikatzeko ardura zuen pertsonak egindako irakurketaren eta azalpenen oharrak hartu ahal izan zituzten. Halaber, ez zitzaien jakinarazi 1.B.b) proba zuzentzeko aurrez finkatutako irizpide objektibo batzuk zeudela, baina berrikuspenean egiaztatu ahal izan zuten parte-hartzaileen izenak azterketen orrietan agertzen jarraitzen zutela.
- Merezimenduen balorazioaren emaitza modu globalean argitaratu zen, atal bakoitzaren xehakapena adierazi gabe, ezta parte-hartzaile bakoitza ebaluatzean kontuan hartu ziren merezimendu zehatzak ere.

Jarduteko modu horrek erabat zailtzen zuen ezarritako epean (2018ko irailaren 5etik 10era, 14: 00ak arte) arrazoitutako erreklamazioa jartzeko aukera, bai norberaren merezimenduei dagokienez, bai gainerako pertsonen baloratu ahal izan zitzaizkien merezimenduei dagokienez; horrenbestez, ez zen kontuan hartzen lehia-prozesu batean kokatutako edozein jarduerak izan behar duen gardentasuna.

Irailaren 19an, kexagileak bere merezimenduen zenbaketa orokorraren xehakapena ezagutzeko eskatu zuen, eta hasiera batean ukatu egin zioten epez kanpo aurkezteagatik. Hurrengo egunean eskaera berriz egin zuenean soilik jaso zuen eskatutako informazioa (irailaren 26an).

- Merezimendu gisa aurkeztu zuen Ingurumen Zientzietako Lizentziaturaren titulua ez zen baloratu merezimenduen baremoaren atalaren hitzez hitzeko interpretazio batean oinarrituta, lanpostuaren eginkizunei lotutako prestakuntza espezifikoaren balorazioari dagokionez. Horrek edukirik gabe uzten du oinarriaren zati handi bat, eta diskriminatzailea da, unibertsitateko masterrak eta prestakuntza-ikastaroak baloratzeko aukera ematen baitu; aldiz, lanpostuari lotutako beste titulazio batzuk, lizentziaturak edo diplomaturak, esaterako, baztertzen ditu. Dena den, deialdian ere berriaz agertzen dira.

2. Arartekoak Uraren Euskal Agentziara jo zuen kexan adierazitako alderdiari buruzko informazioa eskatzeko eta, horri erantzunez, erakunde horrek zuzendari nagusiak izenpetutako txosten bat igorri zuen. Laburbilduz, honako hau adierazten zen bertan:

- 2018ko maiatzaren 28an, 1.A faseko behin-behineko puntuazioaren zerrenda argitaratu zen, bai eta test motako erantzun zuzenak ere. Hala, erreklamazioak egiteko epea zabaldu zen interesdunek egindako probak ikusi ahal izateko eta beren zalantzak aurkezteko.



- Erreklamazioetarako epea amaituta, ekainaren 1ean 1.B faseko emaitzen behin-behineko zerrenda argitaratu zen, eta erreklamazioak aurkezteko epea ere ezarri zen.
- Kexagileek bilera bat izan zuten ekainaren 11n Uraren Euskal Agentziaren egoitzan; bileran, ikuskaritza-arduradunak bertaratuei proben enuntziatuak nahiz kexagile bakoitzak bere azterketan emandako erantzunak eman zizkien. Halaber, beraiekin erantzunak alderatu ziren, zalantzak argitu eta ohar egokiak hartzearekin batera.

Garapen-probari dagokionez, azterketaren aurretik erantzun-eredu bat ezarri zen proposatutako gai bakoitzerako, eta eredu hori ikuskapenera bertaratu ziren hautagaiek ikusi zuten.

- Jarraian, erreklamaziorako epea zabaldu zen berriz eta, horren ondorioz, pertsona batek aurkeztutako alegazioetako bat baietsi zen; arrazoi hori dela-eta, test motako galderetako bat baliogabetu zen eta erreserbako lehenengo galderak ordeztu zuen. Behin betiko emaitza berriak argitaratu ziren geroago.
 - Horren ondoren, elkarrizketen eta merezimenduak baloratzeko fasea egin zen. Dagozkion zerrendak argitaratu ziren, eta alegazioetarako beste epe batzuk zabaldu. Merezimenduak baloratzeko puntuazioa emaitza orokor gisa argitaratu zen, baina Campo y Ochandianok balorazioaren xehakapena epe barruan eskatu zuten hautagai guztiei igorri zien; beraz, gardentasunaren printzipioa bete zen.
 - Kexagileak alegatutako lizentziaturaren balorazioari dagokionez, ez zitzaion punturik esleitu plaza eskuratzeko berariazko betekizun gisa oinarriek jasotzen zituzten tituluen artean agertzen ez zelako, eta kontuan hartuta baremoak uzten zuela baloratzen *“Titulu ofizialak, parte hartzen den kategorian sartzeko behar dena alde batera utzita, Berariazko baldintzak delakoaren barruan zerrendatu direnak(...)”*
3. Adierazitakoaren arabera, Arartekoak idazki berri bat egin zuen. Bertan aurreko informazio-eskaeran aurreratzen zituen argudioak azpimarratzen zituen. Horrekin batera, jasotako erantzunak aipatzen zituen gaiei buruz sakontzen zuen.
4. Azkenik, Uraren Euskal Agentziak zuzendari nagusiaren beste txosten bat bidali zuen. Txosten horrek (aurretik adierazitakoaz gainera) honako arrazoi hauek gehitu zituen, laburbilduta:
- 2018ko ekainaren 11n aurrez aurre egindako aurreikuspenean kexagileek zalantza guztiak argitu ahal izan zituzten denbora-mugarik finkatu gabe, eta inork ez zuen adierazi argitu gabeko zalantzarik geratu zenik.





Ez da beharrezkoa enuntziatua hitzez hitz idatziz errepikatzea, haren ustez, era honetako proba bat berrikustearen xedea hautagaiei zalantzak argitzea baita.

- Garapen-proban, berriz, hautagaien datuak ageri ziren. Nolanahi ere, azterketak agentziako ikuskaritza-arduradunak zuzendu zituen, eta prozesu honetarako izendatutako ebaluazio-batzordera igorri ziren; enplegu publikorako sarbidea zuzentzen duten printzipioak errespetatu ziren, une oro.
- 1.B.b) faseko behin-behineko emaitzak 2018ko ekainaren 1ean argitaratzearen helburua ez zen epeak laburtzea, ekainaren 11n aurrez aurre egindako berrikuspenaren ondoren alegazioak egiteko beste epe bat zabaldu baitzen.
- Azterketa baino lehen 1.B.b) faserako finkatutako erantzun-ereduak proba baloratzeko irizpide orokorrak jasotzen zituen berez, ereduzko erantzun gisa adierazitakotik neurri txikiagoan edo handiagoan urruntzen ziren heinean, eta azterketak zuzentzeko erabili zen.
- Epearen barruan eskatu zuten pertsonei bidali zitzaizen merezimenduen xehakapena bakoitzaren berezko merezimenduetara mugatu zen, ez baitzen egokitzat eta beharrezkotzat jotzen gainerakoen merezimenduen balorazioaren xehetasunari buruzko informazioa lortzea, eta honako hau irizteagatik: informazio hori emateak datu pertsonalak babesteko arloan indarrean dagoen araudian ezarritako printzipioak urra zitzakeela.
- Merezimenduen baremoak era guztietako tituluak aipatzen zituen; izan ere, prozesu honetarako oinarri espezifikoak izan arren, atal hori beste prozesu batzuen parekoa zen eta, bertan, dena sartu zen, oro har. Hala ere, puntuagarriak ziren titulu ofizial bakarrak deialdian sartzeko erabilitakoaz bestekoak izanik, tituluei buruzko betekizun espezifikoetan jasotako erartearen artean zeudenak ziren.

Masterrak eta unibertsitateko diplomak baloratu diren, dena den, prozesuko oinarriek hori egiten uzten zutelako.

Gogoetak

1. Urari buruzko Legearen (ekainaren 23ko 1/2006) 5. artikulua sortu zuen Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, berezko nortasun juridikoarekin eta bere eginkizunak betetzeko jarduteko gaitasun osoarekin.





Bestalde, martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren bidez onartutako Uraren Euskal Agentziako estatutuen 14. artikulua agentziako langileei buruz hitz egiten du, zehazki, haren bigarren eta laugarren apartatuek honako hau xedatzen dute, hurrenez hurren:

“2.- Agentziaren esku dago lanpostuak betetzeko sistema erabakitzea, hautespen-proben baldintzak eta ezaugarriak zehaztea nahiz lanpostuak betetzeko eta laneko sustapeneko prozeduretarako deiak egitea eta horiek kudeatu eta ebaztea, betiere publizitate-, meritu- eta gaitasun-printzipioekin bat. Euskara badakitela egiaztatu beharko dute gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Orokorretako langileei eskatzen zaien moduan.”

“4.- Kontratupeko langileentzat gordetako lanpostuak, berriz, Agentziako Zuzendaritza Nagusiak egindako deialdi publiko bidez beteko dira, enplegu publikoa eskuratzeko ezarritako printzipioak zorrotz betez.”

Hori guztia ikusita, argi eta garbi dago enplegu publikorako sarbidearen printzipio eta irizpide orokorrak aplikatuko zaizkiela Uraren Euskal Agentziako lanpostuak betetzeko pertsonak hautatzea xede duten deialdiei. Hortaz, baita kexa-espeditente hau eragin duen prozesuari ere.

2. Parte-hartzaileek test motako galderen eta erantzunen enuntziatua eskuratzeko aukerari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak berretsi du ez ziotela kopiarik eman, hori egitea beharrezkoa ez zela pentsatu baitzuten; izan ere, erreklamazioak aurrez aurre egindako bilera batean berrikusi ziren, eta bertan oharrak hartzeko eta zalantzak argitzeko aukera izan zuten.

Arartekoaren aburuz, hautapen-prozesuen barneko erreklamazioen izapideek garrantzi handia dute, parte-hartzaileek beren jarduna berrikusteko nahiz kalifikazio-epaimahaiak hartutako erabakiak berrikusteko bermea baitira, bai eta erabaki horien aurka jotzeko ere, horretarako arrazoi zehatzak emanaz.

Beraz, interesdunei sortzen zaizkien zalantzak argitzeaz gain, beren jarrera justifikatua defendatzeko aukera dute; hala, zuzena izan ez dela uste duten ebazpen bati berme guztiekin aurre egin ahalko diote.

Eta, egia esan, ez dirudi lan hori egin daitekeenik prozesu honen 1.A fasean erabilitako ordezkari erantzunak dituzten galderen proba batean, galderen eta erantzunen enuntziatua izan gabe, normalean erantzun horien arteko aldeak txikiak baitira.

Horri buruz, gogoan izan behar da behin-behineko emaitzen aurkako erreklamaziorako epea Uraren Euskal Agentziak aipatutako bilera egin aurretik egin zela; beraz, eskatutako informazioa jasotzeko zain, erreklamazioa aurka egiteko adierazpen bat baino ez zen.

Bilera horretan sortutako arazo guztiak argitu zirela nabarmendu du Uraren Euskal Agentziak, eta hori egiteko denbora-mugarik ez zela izan. Kexa-idazkiak zioen, dena den, berrikuspenaren arduradunak galderak eta erantzun-aukerak





banan-banan bizkor irakurri zituela; beraz, horri buruzko ohar batzuk baino ezin izan zituzten hartu.

Erakunde honek ez daki, berrikuspen horren baldintzak ikusirik, ohar horietan zehaztasunez jaso ahal izan zen azterketa osatzen zuten 25 galderen eta izan zituzketen 4 erantzunen edukia. Halaber, ez dirudi era honetako bilera bat denik izapide hori egiteko bide egokiena; izan ere, une horretan zalantzak azaltzeko berehalako hausnarketa-ariketa bat egin behar zen eta, gainera, kontrako interesak eta ikuspegiak zituzten pertsonen aurrean.

Nolanahi ere, Arartekoak uste du 1.A faseko ariketa osatzen zuten galderen eta erantzunen enuntziatuen kopia bat behin baino gehiagotan eskatu zutenei ez emateko arrazoirik ez zegoela, kontuan hartuz, gainera, berrikusteko bileran irakurri eta aztertu zirela.

Kopia hori emanaz pertsona horiek erreklamazioa berme guztiekin egiteko ezinbesteko egitate-elementuen berri izango lukete, eta hautapen-prozeduraren gardentasunari lagunduko lioke, gainera.

Berrikuspena egiteko bileraren ondoren beste alegazio-epe bat irekitzea berme-elementutzat jo daiteke prozesuaren barruan, baina epe horretarako ere ez zituzten interesdunek galderen eta erantzunen enuntziatuak izan; beraz, aurreko epearekin alderatuta eskuragarri zegoen informazioa hobetu arren, erakunde honen iritziz, ez zituzten behar ziren elementu guztiak, haien defentsa egokia egin ahal izateko.

3. 1.B faseko behin-behineko emaitzen argitalpenari dagokionez, 1.A faseko emaitzen aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen zen egun berean, ikusi behar da fase horretara igarotzea fase horren emaitzek baldintzatzen zutela, eta, beraz, erreklamazioaren bat baiesteak 1.B fasera sartzen ziren pertsonen zerrenda alda zezakeela.

Uraren Euskal Agentziak argudiatu du jardun horren helburua ez zela prozesuaren epeak laburtzea; hala, adierazi du erreklamazioak behar bezala aztertu zirela, alegazioak egiteko beste epe bat ireki zela berrikuspen-bileraren ondoren, eta epe horretan egindako alegazioetako bat ere baietsi zela.

Illo horretan, onartu behar da erreklamazio hori baiesteak eta horrek dakarren emaitzen zuzenketak argi adierazten dutela alegazio horiei prozedurak aitortzen dien balioa eman zitzaieela.

Nolanahi ere, Arartekoaren ustez, 1.B fasean parte hartzeko 1.A fasea gainditu behar dela kontuan hartuta, egokiagoa izango zen 1.A fasearen aurka aurkeztutako erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko finkatutako denborak errespetatzea, bereziki premiazko izapide bat justifikatuko zuen arrazoirik ez balego.



Beste era batera egiteak, oraindik emaitza horiek behin betikoak ez direnean, aurkeztutako erreklamazioek inolako ondoriorik izango ez dutela hautematen laguntzeaz gain, kexagileak aipatzen zuen moduan, baliteke nahaste-egoerak sortzea erreklamazio bat baiesteak eragiten dien pertsonengan, bai eta azkenean betetzen ez diren itzaropenak sortzea ere.

4. Kexagileak azaldu zuenez, proba praktikoa baloratzeko irizpideei buruzko informaziorik ez zuen jaso azterketa egin aurretik eta ebazpen honetan behin eta berriz aipatutako berrikuspen-bileran. Beraz, adierazi zuen ez zekiela zer kontzeptu jaso behar zituen kasu bakoitzaren garapenak eta nola puntuatzen zituen.

Uraren Euskal Agentziaren txostenak dio 1.B faseko azterketaren aurretik erantzun-eredu bat ezarri zela, proba baloratzeko irizpide orokorrak jasotzen dituen, eta eredu hori erabili zela azterketa guztiak zuzentzeko.

Dena den, ez du ezer esaten honi buruz: kasu praktikoa egin aurretik informazioren bat eman al zitzaien parte-hartzaileei zuzenketa egiteko erabiliko ziren balorazio-irizpide orokorre dagokienez. Eta ez du argitzen, ezta ere, kontraesan nabarmena dagoela kexagileak egindako adierazpenen eta URAK Arartekoari bidali zion lehen txostenaren artean; bertan ziurtatzen zen berrikuspena egiteko bilerara joan ziren pertsonak erantzun-eredu hori eskuratu zutela; kontraesan hori berariaz jaso zen erakunde honek bidali zion eskaeran.

Oro har, deialdiek beraiek nahiz hautapen-prozesuen epaimahai arduradunek baloratzeko eta haztatzeko irizpide objektibo batzuk hartu behar dituzte, eta irizpide horiek dira probak egiten dituzten parte-hartzaileen azterketak zuzentzeko oinarri. Behin eta berriz aipatutako jurisprudentziaren arabera, irizpide horiek finkatu behar dira eta parte-hartzaileei adierazi ariketak egin aurretik.

Hala, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2016ko azaroaren 22ko epaiaren arabera (azpimarrak guk egindakoak dira),

“En efecto, conviene recordar que los procesos selectivos para ingresar en el empleo público se rigen por los principios de igualdad, mérito y capacidad por exigencia directa de los artículos 23.2 y 103.3 de la Constitución.

(...)

Es decir, se han de justificar los criterios observados, los cuales se deben establecer previamente a la celebración de las pruebas y dar a conocer a los aspirantes también con anterioridad a la misma [sentencias 1058/2016, de 11 de mayo (casación 1493/2015) y de 16 de diciembre de 2015 (casación 2803/2014)]. Además, se ha de explicar por qué la aplicación de tales criterios conduce al resultado cuestionado por el recurrente [sentencias de 13 de julio de 2016 (casación 2036/2014), 29 de enero de 2014 (casación 3201/2012), 15 de octubre de 2012 (casación 4326/2011), 16 de mayo de 2012 (casación 1235/2011), 27 de abril de 2012 (casación 5865/2010), 10 de abril de 2012 (casación 183/2011), 19 de julio de 2010 (casación 950/2008), 2 de diciembre de 2008 (recurso 376/2006)].”

Jurisprudenzia horrek berak adierazten du, halaber, hautapen-prozesu batean azterketa bati emandako puntuazioa aipatze hutsak ez dakarrela beti nahikoa arrazoi; izan ere, aurkakotasuna dagoen kasuetan, beharrezkoa izango da jakitea balorazio-irizpideak aplikatzeak kasu bakoitzean esleitutako puntuazioa daraman arrazoibide zehatza. Hala, goian aipatutako epai berberak honako hau dio:

“Por otro lado, la jurisprudencia sentada por la Sección Séptima ha insistido que la necesaria motivación de las decisiones de los tribunales calificadoros o comisiones de selección no se satisface con la emisión de una calificación numérica y que en los casos en que algún aspirante cuestione la que se le haya dado, bien por considerarla insuficiente en relación con sus propios méritos o con el contenido de sus ejercicios, bien por comparación con el trato dado a otros aspirantes, se debe explicar el camino seguido para la asignación de la calificación concedida.”

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2019ko urtarrilaren 31ko epaiak ildo hori bera azpimarratzen du honako hau ondorioztatzean: pertsona batek bere eskubidea urratutzat jo zuen, nahiz eta jakin zer balorazio-irizpide eta zenbakizko zer emaitza esleitu zitzaizkion, ez ziotelako azaldu irizpide horiek aplikatzeak zergatik ekarri zuen puntuazio zehatz hori:

“En definitiva, lo que se está cuestionando no es cómo se debería llevar a cabo la valoración del segundo ejercicio sino el cómo se valoró su ejercicio aplicando los criterios previamente fijados. Queda claro en la exposición de la parte y, también de la Administración, que el órgano de selección fijó previamente los criterios de calificación y los puso en conocimiento de los participantes en el proceso selectivo facilitándoles una hoja de instrucciones y un cuadernillo donde constaba la puntuación que se concedería a cada una de las preguntas -se sobreentiende, correctamente respondidas-. Lo que se cuestiona es cómo se aplicaron esos criterios para valorar sus respuestas y, por tanto, la última de las exigencias antes citadas para considerar que la motivación del juicio técnico efectuado es suficiente.

(...)

En definitiva, consideramos que concurren en la sentencia los vicios imputados en este recurso pues no ha sido correctamente aplicada la doctrina jurisprudencial de esta Sala Tercera sobre el control de la discrecionalidad de los órganos de selección y sobre la necesidad de motivación de sus decisiones cuando le sea solicitada información concreta por los participantes en los procesos selectivos, concurriendo falta de motivación formal y material puesto que (i) no se indicaron al recurrente las razones de la decisión administrativa, y (ii) porque aunque constan dos de los tres elementos que según la jurisprudencia de esta Sala constituyen el contenido de la motivación -se conoce el objeto de la calificación o valoración, que no fue sino el contenido de los casos prácticos realizados y que integraban el segundo ejercicio (que obran en el expediente); se sabe también cuál fue el criterio seguido para decidir la calificación (el criterio aprobado por el Tribunal Calificador)- no se conoce el tercero de ellos, el referido a cuál fue la razón de la puntuación finalmente otorgada, los motivos concretos del desajuste del examen con el criterio fijado y aplicado a todos los aspirantes del proceso selectivo y conocido por todos los concursantes.”

Kexa honen gaiari dagokionez, ez da egiaztatu parte-hartzaileei azterketak zuzentzeko kontuan hartuko liratekeen balorazio-irizpideei buruzko adierazpenik eman zaienik, ez eta, Uraren Euskal Agentziak aipatzen duen erantzun-eredua egon arren, kexagileak horren berri izan zuenik ere; azken horrek, berrikuspena

egiteko bileraren ondoren, azterketak kalifikatzeko moduarekin ados ez egoten jarraitzen zuen.

Arartekoaren iritziz, eta jurisprudentzia-orientazio horri jarraituz, horri buruzko informaziorik ez izateak ez dio soilik eragiten hautapen-prozesua ebaluatzeko batzordearen jardunaren arrazoiari, baizik eta kexagilearen defentsarako aukerak kaltetzen dituen egitatetzat jo daiteke.

5. Kasu praktikoak garatzeko proba parte-hartzaile bakoitzaren datuak jasotzen zituen orrialde batzuetan egin zen. Kexagilearen hasierako baieztapena Uraren Euskal Agentziak berriaz berretsi zuen, baina horrek ez zuen justifikazio handiagorik eman baieztapen honi buruz: agentziako ikuskaritza-arduradunak azterketak zuzendu zituela enplegu publikorako sarbidea arautzen duten printzipioak errespetatuz.

Arartekoak uste du jarduteko modu horrek ez dituela errespetatzen prozeduraren oinarriko printzipioak; izan ere, hautapen-prozesuetako probetan egindako azterketen tratamendu anonimoa funtsezko elementua da enplegu publikorako sarbidea berdintasun-baldintzetan bermatzeko.

Justizia-auzitegiek erabaki asko hartu dituzte ildo berean. Honako hauek aipa daitezke, adibide modura:

- 2001eko irailaren 12ko epaia, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiarena:

“OCTAVO.- Que el último de los defectos alegados en la demanda, y se ha de decir que de entidad mayor a todos, es el de no haberse procurado en modo alguno en el curso de la prueba de autos el anonimato de los aspirantes intervinientes en ella (...)

(...) no se puede asegurar -por lo menos, sin más- como sostienen los demandados, que el conocimiento de la identidad de los partícipes en la prueba no haya tenido influencia en la calificación de sus exámenes (...)

(...) en el caso de autos no sólo no se intentó, sino que se mandó justamente consignar el nombre y apellidos de cada partícipe en su ejercicio, con lo cual se adoptó infelizmente la forma más directa de identificación personal, es decir, no se garantizó el anonimato de cada aspirante, lo cual es pues un defecto formal no sólo derivable en indefensión, sino proclive a poder influir incluso de modo subconsciente en el resultado de fondo de la calificación (...)

(...) aunque se pueda decir que ello no habría de tener importancia en el primero de los ejercicios (por ser tipo "test" y haberse corregido a través de una plantilla única y no constar que ésta hubiese sido realizada después de conocer los resultados del ejercicio y la identidad de sus autores), resulta en cambio trascendente en el caso del segundo ejercicio.”

- 2004ko maiatzaren 31ko epaia, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiarena:

“SEGUNDO.- No hay en las bases de la convocatoria ninguna que disponga la realización del primer ejercicio (contestación por escrito a un cuestionario de preguntas tipo test con respuestas alternativas) sin la identificación del aspirante, pero tal previsión no es propia o inexcusable del acto de convocatoria, sino una medida que en garantía de la imparcialidad debió ser acordada, en su caso, por el tribunal calificador.



Por referirse a un requisito de garantía de objetividad en el procedimiento selectivo y no a la forma o contenido de los ejercicios no es necesario que el anonimato haya sido exigido por las bases de la convocatoria, porque la necesidad de esa medida viene exigida por el principio de acceso en condiciones de igualdad; y es consustancial a ejercicios escritos que no van a ser leídos ante el Tribunal (Sentencia de esta Sala de 3-4-2000, rec. 1679/1997).

Es, precisamente, función del tribunal calificador la de velar por el respeto a los mencionados principios o derechos durante la realización de los ejercicios y para el cumplimiento de esa finalidad hay medidas como las conducentes a garantizar el anonimato de los aspirantes que no son discrecionales sino estrictamente necesarias; dicho de otra forma, no hay garantía de imparcialidad si no se mantiene en secreto la identidad de los aspirantes.

El primer ejercicio de la oposición pudo realizarse y corregirse sin necesidad de que constase la identidad de los aspirantes.

Por lo tanto, esa medida además de posible era necesaria para garantizar la imparcialidad en el procedimiento de selección.

La identificación de los aspirantes innecesaria a otros efectos era necesaria para garantizar la participación en condiciones de igualdad.

*No hace falta que haya una norma que establezca la obligación de garantizar el anonimato de los aspirantes, tampoco en las bases de la convocatoria, porque esa regla como cualquier otra que sea *condictio sine qua non* de igualdad o imparcialidad, es consustancial a los principios y derechos ya citados.*

Las pruebas de selección deben realizarse en forma y condiciones que no permitan la concesión de ventajas a unos aspirantes en demérito de otros. La identificación posibilita el trato desigual y por esa sola razón vulnera los artículos 23-1 y 103 de la Constitución, salvo que haya alguna razón que lo justifique (no es el caso, dadas las características del primer ejercicio).

Eso es lo que dice la sentencia del T.S.J. de Castilla-La Mancha, Secc. 2ª de 11-3-1999, rec. 2174/1996 citada por el recurrente.

TERCERO.- La irregularidad consiste en arbitrar medidas como la identificación de los aspirantes que quiebran la garantía de imparcialidad y no en las consecuencias que puedan derivarse de aquella, que incluso pueden incidir en otros ámbitos de responsabilidad como el penal.

Porque no puede admitirse un sistema que lejos de garantizar la imparcialidad en la valoración de los aspirantes hace posible el trato desigual.

Y no es sólo que la identificación de los aspirantes posibilite el trato desigual, sino que en tales casos ese trato puede producirse sin que sea posible su verificación.

Por eso hablamos de infracción al sistema de garantías y no de infracciones de otra clase. Precisamente la razón del anonimato y de otras medidas es la de evitar que se produzcan actuaciones parciales no susceptibles de control. Porque si la infracción final o de resultado fuese verificable la medida de garantía resultaría ociosa o innecesaria.

La imparcialidad debe garantizarse con medidas objetivas que ofrezcan seguridad y confianza a los aspirantes; no puede dejarse a la buena voluntad del tribunal ya que en ese caso su actividad pudiendo ser irregular no podría ser controlada; en consecuencia, cualquier trato de favor podría quedar impune.



Así, la desconfianza o duda de imparcialidad no proviene de la actuación del tribunal, sino de medidas que permitan actuaciones arbitrarias no susceptibles de control.

La desconfianza o inseguridad sobre el respeto de los derechos citados ha sido generada por un defecto en el sistema de garantías, no por actuaciones constatadas o constatables.

Por consiguiente, no puede exigirse a la recurrente la prueba (¿diabólica?) de la manipulación en cuyo caso estaríamos hablando de infracción de naturaleza bien distinta.

Nos estamos refiriendo a una obligación de medios, como la de mantener en secreto la identidad de los interesados, no a la comisión de una infracción de resultados.

Esa medida no sólo es necesaria para garantizar en abstracto la imparcialidad sino para fiscalizar cualquier actuación contraria a ese principio.

Sin esa medida la infracción del derecho a participar en condiciones de igualdad es posible, pero no su verificación y control.

En eso consiste la infracción y no en la constatación de consecuencias o perjuicios ciertos.”

- 2009ko urtarrilaren 19ko epaia, Auzitegi Gorenarena (aurrekoa berresten du):

“En efecto, la sentencia no aplica indebidamente los artículos 23.2 y 103 de la Constitución, ni crea una norma jurídica nueva al margen de las bases y de esos preceptos. Al contrario, los defiende y afirma que la aplicación correcta de las bases exigía que el primer ejercicio de la oposición se hiciera asegurando que, a la hora de corregirlo, no constara en las hojas de respuestas a los cuestionarios la identidad del aspirante al que correspondía. Esta exigencia no es ajena a aquellos artículos del texto fundamental y, si bien se mira, tampoco a las bases de la convocatoria pues, aunque nada dicen de cómo debía llevarse a cabo materialmente la prueba, sí marcan la diferencia entre la primera y la segunda desde el momento en que exigen que el ejercicio en qué consistía esta última fuera leído ante el tribunal calificador. Eso supone que aquí excluye por razones obvias el anonimato. Ahora bien, el silencio respecto a cómo tenía que hacerse la primera no autorizaba a que se realizase sin asegurarlo.

Tiene razón, por tanto, la sentencia. La garantía de la igualdad en el acceso a la función pública y de la imparcialidad y objetividad en la actuación de la Administración en los procesos selectivos se asegura, en casos como estos, evitando que los ejercicios contengan la identidad de los aspirantes. La correcta interpretación de las bases, a la luz de los criterios constitucionales señalados, llevaba necesariamente y sin dificultad a esa conclusión. En cambio, al proceder en la forma en que se hizo, se prescindió de un elemento objetivo y necesario del procedimiento, determinando que quedara viciado en sí mismo.”

- 2015eko uztailaren 8ko epaia, Auzitegi Gorenarena:

“Lo segundo a destacar es que no puede ignorarse que, tratándose de una prueba en cuya calificación el Tribunal Calificador goza de un espacio de apreciación y con una importante incidencia en el resultado final del proceso selectivo, esa garantía del anonimato es una herramienta al servicio de lograr en la mayor medida posible la eficacia del principio constitucional de igualdad en el acceso en el acceso a la función pública (artículo 23.2 CE).

Y lo tercero a subrayar es que, siendo esa garantía del anonimato un derecho para todo aspirante a un proceso selectivo inherente a su derecho constitucional a la igualdad en el acceso a la función pública, su ejercicio no puede quedar condicionado a la anuencia que



hayan manifestado otros aspirantes con la manera como se desarrolló el proceso selectivo litigioso."

Erakunde honen ustez, horretatik guztitik ondorioztatzen da hautapen-prozesu batean parte hartzen duten pertsonen anonimotasuna zaintzeko behar diren neurri guztiak hartu behar direla, baldin eta proba horien izaerak edo ezaugarriek haiek egitea eta zuzentzea eragozten ez badute.

Eskakizun hori enplegu publikora sartzeko berdintasunari buruzko konstituzio-errekerimenduak sortzen du, eta, beraz, hautapen-epaimahaiak aintzat hartu behar dute, alde batera utzita deialdiaren oinarriek horri buruz zerbait aurreikusitakoak izan diren edo ez.

Bestalde, betebeharrak horren balioa da, hain zuzen ere, proban zehar berdintasun-baldintzak betetzen direla ziurtatzea, eta, beraz, hori urratzeak hautapen-epaimahaiaren jardunari buruzko zalantza-elementu bat sartzea dakar, bai eta prozesuan duen inpartzialtasunari buruzkoa ere; izan ere, epaietako batean baieztatzen denez, baliteke parte-hartzaileen identitatea ezaugarriak izan dezakeen eraginaz ez jabetzea.

Hori dela eta, kexa honetan aztertutako kasuak aztertzean, benetan garrantzitsua ez da ariketak zuzentzeko orduan arbitrariorotasunik ez dagoela egiaztatzea, kontuan hartuta, gainera, egiaztapen hori oso zaila izango litzatekeela, baizik eta, hain zuzen ere, balizko irregulartasunak gertatzea eragoziko luketen baldintzak ziurtatu ez direla egiaztatzea.

Prozesuaren proba praktikoari dagozkion azterketetan pertsona bakoitzaren identifikazio-datuak jasota egotea, prozesua antolatzen duen erakundeak berak baieztatuta, anomalia bat da, eta, beraz, prozesu hori behar bezalako bermekin egitea eragozten du.

6. Prozesuan zenbatutako merezimenduen balorazioa modu globalean argitaratu zen; beraz, prozesuan parte hartu zuten pertsonak ezin zuten jakin, hasiera batean, zer merezimendu baloratu ziren eta nola puntuatu ziren, bai norberaren merezimenduei dagokienez, bai gainerako parte-hartzaileei dagokienez.

URA-Uraren Euskal Agentziak adierazi du hautapen-prozesuaz arduratzen den enpresak epearen barruan bidali zela eskaera egin zutenei xehakapena.

Dena den, jardun horren balioa baloratze aldera, azpimarratu behar da deialdiaren oinarriek eta emaitzen argitalpenak ez zutela aipatzen xehakapen hori eskatzeko aukera; beraz, ezin da hartu interesdun guztiei eragingo dien berme-neurri gisa.

Bestalde, ez dakigu zenbat denbora erabili zuen enpresak xehakapena bidaltzeko, baina ez da ahaztu behar erreklamazioak egiteko epea irailaren 5ean (asteazkena) behin-behineko emaitzak argitaratu zirenetik irailaren 10eko





(astelehena) 14: 00ak arte luzatzen zela, eta, beraz, izapide horiek guztiak egiteko denbora urria zela. Alderaketa eginez, kexagileak irailaren 19an, asteazkena, 10:12an, eta berriro hurrengo egunean, 21:47an, egin zuen xehakapen-eskaera irailaren 26an, asteazkena, bete zen, 09:52an; beraz, erreklamazio-eperako ezarritakoa baino denbora gehiago behar izan zen, nahiz eta aitortu behar den eskaera hori epez kanpo egin zela eta horrek eragina izan zezakeela erantzuna atzeratzeko orduan.

Azkenik, merezimenduen banakapena norberaren puntuazioetarako bakarrik zen, eta, beraz, prozesuan parte hartu zutenek ere ezin izan zuten jakin gainerako pertsonen merezimenduak nola baloratu ziren edo akatsen bat zegoen.

Erakunde honen aburuz, funtsezkoa da pertsona batek hautapen-prozesu batean aurkeztu dituen merezimenduetako bakoitzak merezi izan duen balorazioa ezagutzea, bere posizioaren defentsa egokia eratu ahal izateko; izan ere, bestela, zer puntuatu den eta nola puntuatu den baino ezin izango du egin.

Gainera, ondorio horietarako, beharrezkotzat jotzen da parte-hartzaile guztiak ikusi ahal izatea gainerako parte-hartzaileen merezimenduak zein izan diren eta nola hartu diren kontuan, beren balorazioarekin alderatu ahal izateko eta, hala badagokio, erreklamazioa aurkezteko, emaitzarekin ados ez badaude.

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2016ko azaroaren 22ko epaiak, lehen adierazi dugunak, publizitatearen printzipioa aipatzen du honako gai hauek aztertzeke esparru gisa:

“Asimismo, los procesos selectivos se desarrollan bajo el principio de publicidad. (...) Y, precisamente, porque la publicidad es condición necesaria para asegurar el respeto a los principios de igualdad, mérito y capacidad, no cabe afirmar que haya fases de los procesos selectivos de carácter privado, ni que los aspirantes no tengan derecho a conocer los ejercicios de aquellos con los que compiten cuando reclamen su derecho fundamental a acceder al empleo público.”

Erakunde honek alde zuzenetik honi buruzko iritzia eman du: lehia-prozesu batean parte hartzen duen pertsona batek administrazio-espeditentea osatzen duten dokumentuak, beste pertsona batzuei dagozkienak barne, eskuratzeko aukera izan behar duen ala ez, eta ondorioztatu du eskubide hori aitortu behar zaiola.

Hala, 2019ko maiatzaren 28ko 2019R-1328-18 Ebazpenak, ondoren azaltzen direnen antzeko gogoetak jasotzen ditu; ariketa praktikoko baten zuzenketari buruzkoak diren arren, merezimenduen balorazioari ere aplikatu daitezke, atal honen xede dena:

“(...) erakunde honen iritziz, kontuan hartu behar da defentsa egokia antolatzeak eskatzen duela, alde batetik, ariketari berari irizpideak nola aplikatu zaizkion jakitea, eta bestetik,





gainerako parte-hartzaileei ere nola aplikatu zaizkien jakitea; horrenbestez, ziurtatu ahalko da haietan guztietan modu berean jardun dela, behar den inpartzialtasuna gordez.

(...)

Hori guztia aintzat hartuta, Arartekoak uste du kexa honetan aztertutakoaren antzeko egoeretan, beharrezkoa dela kexagileei espediente osoa ematea, beren eskubidea bermeekin antolatzeke aukera izan dezaten, herri-administrazioek beren jardunean jarraitu beharreko gardentasun-printzipioaren eta enplegu publikoa lortzeko prozesuaren berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioen esparruan."

Ebazpen hori arduratzen da ere eskubide hori gainerako parte-hartzaileen datu pertsonalak babesteko eskubidearekin lotzeaz, eta Uraren Euskal Agentziak ere aipatzen du eskatzailearenak ez diren beste merezimenduen xehakapena ukatzeko oinarri gisa.

Erakunde honen iritziz, datu pertsonalak babesteko eskubidea ezin da argudiatu ariketa baten kalifikazioaren edo puntuazio baten esleipenaren oinarri diren egitatezko elementuen ezagutza ukatzeko; izan ere, elementu horiek erabakigarriak dira hautapen-prozesuaren azken emaitzari dagokionez, eta, beraz, parte hartzen duten pertsonak enplegu publikora heltzeko dituzten aukerei dagokienez.

Ondorio hori atera da askotariko jurisprudentzia eta eskubideak babesteko beste zenbait erakundek erakutsitako jarrera aztertu ondoren (Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, esate baterako); Arartekoaren iritziz, egindako gogoetak bermatzen uzten dute.

7. Deialdiaren oinarrietan argitaratutako merezimenduen baremoak lanpostuaren eginkizunei lotutako berariazko prestakuntzaren gaineko atal bat jasotzen du. Atal horretan gehienez 8 puntu eskuratu daitezke, eta honela deskriba daiteke:

"Baloratuko da lanpostuko gaitasunak garatzera bideratutako berariazko prestakuntza, hala nola:

- Gaitasun teknikoak, ur-ikuskapeneko arloan.*
- Ezagutzak arlo hauetan: ura, emarien neurketa, bioingeniaritzaren teknikak eta sare hidrografikoa.*
- Antolaketa eta plangintza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, prebentzioa eta larrialdiei aurre egitea."*

Jarraian, balora daitezkeen tituluak eta ziurtagiriak zehazten dira, hitzez hitz adierazita:

"a) Unibertsitateko titulu ofizialek, 5 punturainoko gehienezko puntuazioa:

i) Titulu ofizialak, parte hartzen den kategorian sartzeko behar dena alde batera utzita, Berariazko baldintzak delakoaren barruan zerrendatu direnak, honako baremo honen arabera balioetsiko dira:

- (1) I. lanbide heziketa edo erdi-mailako teknikaria: 1,5 puntu titulu bakoitzeko.*
- (2) II. lanbide heziketa edo goi-mailako teknikaria: 2,5 puntu titulu bakoitzeko.*





(3) Diplomatura, Arkitektura teknikoa edo Ingeniaritza teknikoa: 3,5 puntu titulu bakoitzeko.

(4) Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza: 5 puntu titulu bakoitzeko.

ii) Masterrak, diplomak eta bestelako unibertsitate-tituluak:

1) 250 ordu edo gehiagoko eta 600 ordu baino gutxiagoko tituluak: 2 puntu titulu bakoitzeko

2) 600 ordu edo gehiagoko tituluak: 2,5 puntu titulu bakoitzeko.

Irakaskuntza bereko ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen duten unibertsitateko tituluak balioesterakoan, egiaztatutako goi ziklokoek baino ez dute puntuaziorik jasoko.

b) Lanpostuari dagokion funtzioekin lotura zuzena duten hobetzekuntza-ikastaroak eta azken 10 urteetan eginak. Ikastaroek baremo honen arabera puntuazioa izango dute, bete beharreko lanpostuaren funtzioekiko egokitasunaren arabera doituta, gehienez 3,5 puntu lortzeko:

i) 10 ordutik 30 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko: ikastaro bakoitzeko 0,35 puntu gehienez.

ii) 30 ordu edo gehiagoko eta 60 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: ikastaro bakoitzeko 0,75 puntu gehienez.

iii) 60 ordu edo gehiagoko ikastaroak: ikastaro bakoitzeko puntu 1,5 gehienez."

Uraren Euskal Agentziak deialdiko oinarrien hitzez hitzeko idazketari heldu dio kexagileak aurkeztutako lizentziaturaren puntuazioa ezesteko; izan ere, a)- (i) azpiatalak, lizentziaturak barne hartzen dituzten askotariko tituluak zerrendatzen dituen arren, titulazioaren betekizun espezifikoa jasotakoak ere aipatzen ditu, eta horien artean goi-mailako teknikariarenak bakarrik agertzen dira.

Interpretazio horren arabera, balorazio horren oinarriaren zati handi bat ezin da aplikatu, azpiatal horretako (1), (3) eta (4) puntuetan berariaz ezarritako tituluetakoa bat ere ezingo litzatekeelako hartu.

Uraren Euskal Agentziak emandako azalpena da oinarri espezifikoa batzuk direla prozesu honetarako, baina oro har dena jasotzen dutela, merezimenduen baremoaren atala beste prozesu batzuetakoen parekoa delako.

Arartekoaren iritziz, oinarrietako beste atal batzuk arautu nahi zuten hautapen-prozesuaren berezitasunetara egokitu ziren moduan, merezimenduen baremoan ere aldaketa egokiak egin behar ziren, merezimenduak idazkera argia eta zehatza izan zezan, parte-hartzaileengan inkoherentziarik eta nahasterik sortzeko aukerarik gabe.

Izan ere, aztertutako oinarria kontraesankorra da titulazioko betekizun espezifikoa sartutako tituluei dagokienez, eta, jarraian, eskakizun horietan aurreikusitakoak gainditzen dituzten titulu batzuk zerrendatu ditu.

Horrez gain, prozesuan baliatutako interpretazioak emaitza berezi bat sortzen du, baloraziotik kanpo uzten baititu unibertsitateko titulu ofizial batzuk, deialdiaren oinarriek prestakuntza espezifikoaren balorazio-esparru orokor gisa





zehazten dituzten kompetentziak eta ezagutzak dituztela egiazta dezaketenak. Hala ere, aukera ematen du titulu ofizial horiez besteko unibertsitateetako masterrak eta diplomak puntuatzeko, nahiz eta haien eskola-karga txikiagoa izan, edo, eskakizunik jasotzen ez duten hobekuntza-ikastaroak ere, lanpostuaren eginkizunekin duten harreman zuzena salbu.

Arartekoaren iritziz, ondorio hori ez dator bat merezimendu-printzipioaren eskakizunekin, halaxe jaso zen erakunde honek Uraren Euskal Agentziari bidali zion idazkian, eta agentziak ez du jarduna justifikatzeko inolako arrazoirik eman, prozesuaren oinarriak hitzez hitz adierazteaz gain.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Egindako gogoeten arabera, berrikus dezala ur-ikuskatzaileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa bat sortzeko deitutako hautapen-prozesua.

